

Heriotzak bizi gaitu



Joxe Manuel Odriozola

Bilduma: Saiopaperak-Pentsamen.Gizartea, 43

Formatua: 140 x 225 mm

Orrialdeak: 216

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2026-09-07

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-145-9

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa


18,50 €



Heriotzak bizi gaitu saiakerak gizakiaren galdera zaharrenetako bati heltzen dio: zer esanahi du heriotzak gure bizitzan? Filosofiaren, antropologiaren, zientziaren eta kulturaren ekarpenak uztartuz, egileak heriotzaren inguruko beldurrak, sinesmenak, paradoxak eta galdera existentzialak aztertzen ditu. Hilkortasunaren kontzientziak gure bizitza nola taxutzen duen erakusten du, eta defendatzen du, jaiotzatik azken arnasara arte, heriotza ez dela soilik amaiera bat, baizik eta gure mundualdiari forma eta neurria ematen dion errealitatea. Hausnarketa sakon baina ulerterrazen bidez, bizitzaren eta heriotzaren arteko lotura korapilatsuan barrena gidatzen du irakurlea.

Joxe Manuel Odriozolak urte luzez saiakeragintzan pilatutako eskarmentua eta heldutasun intelektuala erakusten ditu liburu honetan. Ausardia intelektuala eta giza sentiberatasuna uztartuz, heriotzari buruzko topikoak saihestu eta galdera deseroso baina ezinbestekoei heltzen die; era horretara eramaten du irakurlea bere existentziaren muinera. Pentsamendu kritikoa, jakin-min filosofikoa eta bizitzaren zentzuaren bilaketa estimatzen dituztenentzat, irakurketa aberasgarria eta iradokitzailea da. Azken orria itxitakoan, heriotzari buruz ez ezik, bizitzari buruz ere beste begi batzuekin pentsatzen hasiko da irakurlea.

Joxe Manuel Odriozola



Joxe Manuel Odriozola Lizarribar 1948an jaio zen, Altzon, baina Donostian bizi da gaztetatik. Autodidakta da. Hasieran, Gipuzkoako Gaueskoletan ibili zen koordinazio lanetan, eta ondoren, Pasaiaiko Udal Euskaltegian irakasle izan da erretiroa hartu arte. Zaletasunak hartaturik, saiakera liburu batzuk idatzi ditu soziolinguistika, euskalduntasuna, nazionalismoa eta existentzia-gaiak ardatz hartuta. Berak idatzitako liburu batzuk: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* (1992), *Hizkuntza, kultura eta gizartea* (1998), *Euskalgintzaren lekukoak* (2004), *Nora goaz euskalduntasun honekin?* (2017), *Nazionalismoaren alde eta aurka* (2024), *Sekularizazioa Euskal Herrian* (2024).

Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno XXVI. Saria